

Iñaki Barcena

EHUKO IRAKASLEA ETA EKOLOGISTAK MARTXANEKO KIDEA

Nork nori zor?

N

ORK? Nork eskuratzen ditu etekin gehiago Amalurak ematen dituen fruituetatik? Nork egiten du posible besteen ekosistematik ateratako lehengaiak eta energia baliabideak gutako batzuentzat soilik negozio izatea? Nork markatzen ditu arauak Ekuador, Nigeria zein Bolivia herriak beti galtzaile izateko? Nork banatzen ditu pribilegioak?

NORI? Nori ukatzen zaio Europara etortzeko baimena? Nigeriako gasari ukatuko balitzaio, Bilboko portuan Bahia Bizkaia enpresak eskuratzen duen gasaren %80a ez zen helduko. Nori banandu zaizkio Repsol enpresak 2005 eta 2006 urteetan lortutako etekinak, petrolioaren garestitzearekin sozietate anonimoak inoiz izan dituen altuenak? Ekuador eta Boliviako herritarrek mobilizazio ugari egin dute energia alorreko transnazionalen pribilegioak eteteko, baina zaila daukate oraindik kolonialismo berria amaitzea. Nori dekretatu zaio alerta egoera, euren lurretatik gasa eta petrolio xurgatzen jarraitu ahal izateko? Nigeriako Ijaw edo Ogoni herriak aspalditik ari dira negozio zikin horiek pairatzen eta salatzen.

Noizean behin ere telebistan edo prentsan ikusi, entzun edo irakurtzen dugu ehunka edo milaka lagun hiltzen direla gas hodietan izaten diren leherketak direla medio. Nori leporatu behar zaio Afrikako gasaren eta petrolioaren esportatzai-



IÑIGO AZKONA

le nagusiaren baitan, erregai eskasia itzela egoitea bertako beharrianetarako?

ZOR? Maldizio honetatik atera nahian, duela hamabost urte, Rio de Janeiroko gailurrarekin batera, Hegoaldeko ekologistek zor ekologikoren kontzeptua plazaratu zuten, Ipar Hemisferioko gobernuak eta elite ekonomikoek “azpi-garatutako” herrialdeekiko zorra ordain dezaten. Potentzia kapitalistek Rio de Janeiron klima aldaketari erreparatzeko hartu zuten konpromisoa guztiz lotuta doa energia politikarekin. Ordutik Europako Batasunean, adibidez, ez ditugu erregaien dependentzia eta inportazioa gutxitu. Aldiz, Jose Manuel Naredoren “notarioaren araua” aplikatuz, gero eta mozkin gehiago ateratzen dugu, nahiz eurek gero eta lan zein lehengai gehiago jarri. Gobernuak eta transnazionalak ezartzen dituzte prezioak, eta esklabotzat hartzen dituzte herri indigenak. Herri hauek baina, aski dela oihukatzen dute ozenki.

Kuestio hauen eta beste batzuen inguruan biltzen gara zor ekologikoaren gaian –munduan– jarduten dugun aktibistok zein unibertsitariok. Urriaren bukaeran (25-26an) Sarrikon (EHUn) hitzordua dugu zor ekologikoari buruzko –Hego hemisferioan jaiotako kontzeptu iraultzailea– eztabaida sustatzeko eta ekintza bateratuak antolatzeke. Gure alea ipini gura dugu beste mundu posible horren bidean. ■



Urriaren 25-26an

Sarrikon hitzordua dugu

zor ekologikoari buruzko

eztabaida sustatzeko eta

ekintza bateratuak antolatzeke



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Petrolio bezalakoa dugu. Eta berez urria dena gehiegizko eskararengatik agortzen ari zaigu. Eta baduenak ez ukatea zer den ez dakienez, azken atxilo-tek berriz ere orain hogeita hemeretzi urte igarotakoa dakart gogora, salbuespen egoerak gure etxeetako atek zangoz danbeka jo eta etxeak zolan etzanarazi gintuztenekoa. Komisaldegiatako hirurogeita hamabi orduko legezko epe mugatu hura hiru hilabetekoan bilakatuz, ziega zuloak indiskriminatuki jendez bete eta torturak mortadelazko ogitartekoak baino ugariagoak izan genituen. Kartzelak sutan, kaleak bero. Oraingo hauek zeha-

Pazientzia

tzago jarduten ikasi dute. Ez dute surik agertzen, poxpoluka ari dira. Dianak alea isolatuz, salbuespen egoera fokalizatu egin dute diskriminazioa xede, herri honetako arazo politikoa gutxi batzuen bailitzan. Eta ez dabilta erabat oker, jende gehiegi baitabil bazterretan eroso, batzuen arazoa ogibide dutela. Eta nago, Ibarretxeren ibilbide otzanak petrolio duela eskas, akats, bate-tik erakutsi ibilgailua eremu txikiegia eta kontsumo handiegikoa delako eta bestetik aurkeztu duen gutxiene-ko bidaia malkartsuegia duelako. Petrolio ziurtatu eta ibil-ontzia handitu, guztiok izan dezagun gure lekua. Presoak barne noski. ■